

# KOLDO MITXELENAREN HITZ-ALTXORRA: HITZ, LOKUZIO ETA ESAPIDEEN BILDUMA\*

Valentin OLAETXEA

*“...Horrelakorik, egia, ez zaigu guri bakarrik gertatzen, gaztele-razko zenbait klasiko ere, gehientsuak ez badira, gehiago aipatzen baitira irakurri baino. Aberatsek galera handirik gabe egin dezaketen, ordea, ez zaie behartsuei egoki. Eta nor gu baino behartsuago gai honetan?”*

*(K. Mitxelena. EGAN, 1954)*

Egokia iruditu zait, ikerlan honen zer-nolakoak azaltzen hasi aurretik, Koldo Mitxelenak 1954. urtean Axularren GEROren IV. argitaraldia zela-eta idatzitako hitz horiek denon gogora ekartzea. Zorionez, euskarak eta euskararen inguruko ikerlanek sekulako aurrerapena egin dute ordutik hona; urte hauetan ikerlari eta aditu asko aritu dira euskarazko liburuetan aurki zitezkeen aberastasun ugariak bilatzen eta biltzen eta lan horren fruitua argi asko ageri zaigu gaur egun hainbat liburu, hiztegi eta argitalpenetan. Alde horretatik, eta nori berea zor zaionez, nahi nuke, labur-labur bada ere, Mitxelenaren euskal idazlanen kronologia egin eta haren euskarari buruzko ikerlanen berri pixka bat eman.

1972. urtean, Patxi Altunak apailaturik, *“Mitxelenaren Idazlan Hautatuak”* liburua atera zen argitara. Mitxelenak ordu arte zenbait aldizkaritan (Egan, Euskera, Jakin, Zeruko Argia, Anaitasuna...) argitaratutako artikuluz osatua zegoen liburua

---

\* Errenteriako Udalak 2008. urtean emandako Koldo Mitxelena Ikerketa Bekari esker egin da ikerlan hau. Ikerlana osatzen duten hiztegia eta hitz zerrendak argitalpen honi erantsitako CD-an aurkituko dituzue Word eta PDF formatuetan.

eta bertan hiru artikuluren azterketa lexiko, morfologiko eta sintaktikoa egiten zuen Altunak.

1987. urtean EGAN aldizkariak ale berezi bat plazaratu zuen K. Mitxelenaren omezez. Jakintza-arlo askotako aditu, ikertzaile eta lagunek idatzi zuten liburu horretan, Mitxelenak jorratuak zeuzkan alorrak aztergai harturik; hizkuntza eta literatura, unibertsitatea, zinema, euskara batua... Liburu horretan bada Joxemanuel Bujandaren lan interesgarri bat, “Koldo Mitxelenaren testu azterketa” izeneko, Erreterriako idazle handiaren pentsakeraz eta idaztankeraz argitasun franko dakarrena.

1988. urtean *Mitxelenaren Idazlan Guztiak* bildumako liburuak kaleratzen hasi ziren. Horren barruan zegoen, halaber, *Zenbait hitzaldi*<sup>1</sup> izeneko liburukia (1990). Bilduma horretako liburuak azpi-ohar argigarriz hornituak dira eta amaiera aldean badute ez-ohiko hitzen zerrenda bat, irakurleari irakurketa erraztearren.

2001. urtean “*Mitxelena gure artean*”/“*Mitxelena entre nosotros*” izeneko artikulua-sorta argitaratu zuen Alberdania argitaletxeak, bi liburutan, euskaraz eta gaztelaniaz, Anjel Lertxundiren zuzendaritzapean. Gaztelaniazko itzulpena Jorge Jiménez Bech-ena da.

2004. urtean Patri Urkizuk atondurik “*Koldo Mitxelenaren Euskal Gutunak (1951-1984)*” atera zen argitara, Erreterriako Udalaren eskutik.

Mitxelenaren hitz-altorra aztertu eta gorde dutenen artean bi dira, nire iritziz, derrigor aipatu beharreko izenak:

Batetik, Ibon Sarasola eta haren gidaritzapean osatu den Orotariko Euskal Hiztegia. Usadiozko euskal hitzen gordailu erraldoi horretan neke handirik gabe aurki dezakegu Mitxelenaren idazlanetatik hartutako hitz, esaldi eta lokuzio ugari.

Bestetik, berriz, Elixabete Perez Gaztelu erreterriarrak egindako eta Erreterriako Udalak 1995. urtean argitaraturiko Doktorego Tesia aipatu beharra dago: *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitatea. Koldo Mitxelenaren euskara noranahikotzea: aitzindariak, hiztegia eta hizkuntzalaritzako hitz berezituaren azterketa*. Lan eskerga hori ere, Koldo Mitxelenak euskara noranahiko bihurtzeko egindako bidez eta erabilitako euskaraz orain arte egin den azterketarik osatuena.

Ikusi dugunez, Mitxelenaren euskararen inguruan lan handiak egin dira, baina haren altzorreko aberastasun guztiak ez dira, nire ustez, horrenbestez ahitu. Maila askotako azterketak egin daitezke oraindik. Uste horrek akuilaturik ekin nion lanari 2008. urtean “*Koldo Mitxelena. Ikerketa Beka*” honetarako proposamena aurkeztu nuenean.

---

1. Nahiago izan dugu Zenbait Hitzaldi liburua gure ikerlanetik kanpo utzi. Bertan ageri diren hitzaldiak, jatorriz, gaztelaniaz egin zituen Mitxelenak. Gero norbaitek itzuli zituen euskarara, eta azkenik Mitxelenak berak testua goitik behera aldatu, zuzendu eta orraztu zuen. Horrenbeste aldaketa egin ondoren, zenbateraino ote zuen gogoko Mitxelenak? Ez dakigu, baina, hala ere egokiagoa eta aberatsagoa iruditzen zaigu Mitxelenak oso-osorik bere burutik eta baitatik sortutako idazlanak aztertzea.

## Ikerlanaren helburua

Ikerlan honen bidez, Mitxelenak euskaraz idatzitako lanak arretaz irakurri eta beren adierazkortasun mailagatik interesgarri iruditu zaizkidan hizkuntza-baliabide batzuk bildu, sailkatu eta ordena egokian antolatzen saiatu naiz.

## Zergatik eta zertarako, ordea?

Aurren-aurrenik, nik uste, gauza bat hartu behar dugu kontuan: nahiz eta azkeneko hamarraldietan euskara arlo guztietan erabili, indartu eta zernahitarako gai bihurtzeko urrats izugarriak egin diren, gero eta maizago entzun eta irakurtzen dugu gaur egun euskara kontuan hanka-motz gabiltzala hizkuntzari kolorea eta bizitasuna emateko garaian, bai lagunarteko hizkeran eta bai maila jasoan. Jakina, hizkuntza neutro eta estandarrak dagokion lekua izan behar du, eta hor ez dago zer esanik, baina hortik kanpo badira beste eremu asko, eta horiei dagozkien hizkuntza-mailetako baliabide adierazkorrak aztertzea eta zabaltzea behar-beharrezkoa iruditzen zait, horien guztien premia baitu euskarak gaur egun. Lan asko egin da bai, baina asko gelditzen zaigu oraindik egiteko (ahozko hizkera eta herri-literaturako material ugari eta lehengo eta oraingo idazleen testu anitz astiro eta arretaz ikertu behar lirarteke) eta alde horretatik, uste dut euskarazko munduan maisu eta bide-erakusle izan den Koldo Mitxelenaren hizkuntza aberatsak bide egoki bat eskaintzen digula gure esapideen gordailua osatzeko, aurkikuntza berriak egiteko eta, azterlanen emaitzari esker, gure hizkuntzaren adierazkortasuna handitzeko.

## Azterturiko liburuak eta erabilitako metodologia

Ikerlana egiteko liburu hauek aztertu ditut:

- *Euskal idazlan guztiak I (Bertso berriak, berriketan, ziena eta adabakiak)*
- *Euskal idazlan guztiak II (Liburuak I)*
- *Euskal idazlan guztiak III (Liburuak II)*
- *Euskal idazlan guztiak IV (Literaturaren inguruan I)*
- *Euskal idazlan guztiak V (Literaturaren inguruan II)*
- *Euskal idazlan guztiak VI (Hizkuntzalaritzaz I)*
- *Euskal idazlan guztiak VII (Hizkuntzalaritzaz II)*
- *Euskal idazlan guztiak VIII (Artikuluak eta beste I)*
- *Euskal idazlan guztiak IX (Artikuluak eta beste II)*
- *“Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984)”*

Lehendabizi, liburu guztiak euskarri informatikoan jarri eta testu-analisirako programen bidez (Concordance) aztertzeko moduan prestatu ditut.

Testua irakurri ahala, jaso beharreko hitz, lokuzio edo esapidearen fitxa zabaldu eta horren inguruko azterketa egin dut; zenbat aldiz agertzen den, zein testuingurutan, zein hitzen ondoan, zenbat adiera dituen eta abar.

Lan hori egiteaz batera, adibideak aztertu eta jaso ditut. Aukeraturiko hitz eta esapide bakoitzetik ahalik eta adibide kopururik handiena biltzen saiatu naiz. Izan ere, denok ondo dakigunez, hitzek eta bereziki lokuzioek dagokien testuinguruan hartzen dute beren esanahi oso eta betea, eta lagun jakinak izan ohi dituzte sarri asko aldamenean. Beharrezko iruditu zaidanean, hitz edo lokuzioaren aurreko edo ondoko hitz-segida, esaldi edo pasarte osoa ere hautatu izan ditut, adibidearen esanahia argi gera zedin. Honi dagokionez, esan nahi dut bilduma honen alderdi aipagarrietako bat bildutako sarrera eta adibide kopurua dela (guztira 5.296 sarrera; 2.560.219 karakter). Alde horretatik, esango nuke lehendik eginak diren lanen osagarri egokia izan daitekeela. Horrekin guztiarekin batera, aukeratutako hitz edo esamolde bakoitzaren erdal ordaina edo esanahi bertsuko ordainak ere jarri ditut, ahal izan dudan guztian.

Hitz, lokuzio eta esapideak eta dagozkien adibideak hautatu ondoren, ordena alfabetikoan ezarri ditut. Beraz, azkenean hiztegi-itxura hartu du bildumak.

## Zer nolako hitz, lokuzio eta esapideak bildu ditut?

Asko eta askotarikoak dira Mitxelenak hizkuntzari indarra eta bizitasuna emateko erabiltzen dituen baliabide adierazkorrak. Jarraian bildumatik ateratako adibide batzuk emango ditut, arreta bereziki zer hitzetan eta esapidetan jarri dudan argiago ikus dezazuen.

### Aukeratutako hitzak

✓ Berez adierazgarritasun maila handia edo esanahi bereziki adierazkorra hartzen duten hitzak, eta ohiz kanpoko esanahia/erabilera nahiz irudizko adiera ematen zaienak:

**URARDOTU. Adulterar, descafeinar, desvirtuar.** <Herri kantak> Hedatu, bai, hedatu behar dira, baina **gezatu** eta **urardotu** gabe (Escud.) (I,49).

**HANKAMOZTU. Mutilar. Liburuak...**Surtara ez badoaz denak, **zenbait bider ez ote dituzte murriztuko, soilduko, hankamoztuko**, itxuraldatuko eta hitz batean hobetuko. (II,81).

**GAR. Pasión, entusiasmo, fervor, ardor, celo. Bihotz sutsu haren garra ez da oraindik ilaundu** (II,86). Profeten antzera, **badu Oteizak ere garra eta etorria**

(III,117). ...Etxeberri **bertso-lanera bultzatu zuen garra** (IV,118). Erdarazkoek izan zuten beti **garra eta giharra**,... (VI,78) Ez nuen nik gaztetan ezagutu sasoiaren **kemena eta garra gainezka zerionean**... (VIII,93). Ikusi **SU**

**ABERATS KUME. Hijo de papá.** Horrelako **aberats kumeen gutixientzat**, bada lekurik behar bada Bartzelonan (edo Parisko XVI-gnean, Larresorok dioenez, eta ni hantxe bizitua nauzu), baina ez, nik uste, oraindik gure herrian (MEG,207). Ikusi **KUME**

**PAPERJALE. Ratón de biblioteca.** Lotsagarria da, izan ere, XVIIgn, mendean **Salamancan titulua atera zuen edozein paperjalari aitortzen zaiona** oraindik oraingo gizon gailen bati ukatzea (IX,44).

**MIN 1. Nostalgia, añoranza; deseo, ansia de.** Gogoko izan dut beti, urrutiko **sor-terri-minak** eraginda bezala, Euskal Herria eta euskaldun jendea... (I,56). Zerk jasotzen du gehiago **eder-mina**, atsekabeak ala atseginak? (I,110). ...**Paradisu galduaren mina** daukagu hezur muinetaraino sartua... (V,143). Baina harako **amets-herri haren oroitzapena eta mina** zeharo galdu ez duenak, ... nekez idoroko du gure zine-etxeetan ikuskizun hoberik (I,171). ...neskatxa lirainen **maite-minak** (I,186). Hitz bitan, **erne-mina** ageri du nondinahi aldizkari honek (II,96). .....

**MIN 2. Doloroso; amargo.** Guztiarekin ere, luzatzen ez diren **borroka latzak eta minak** izan daitezke sarri aski (VI,51). Ez baitago **ozpin minagorik** elkarrekin ezin ezkon daitezkeen goxokiz nahasia baino (III,94). ...**eztabaida minetan oihuka zebilen polimista bortitza** (V,122).

**MUIN. Esencia, meollo, fondo, contenido, alma, lo más íntimo, lo esencial.** Bardem'en **predikuaren muina** hauxe da (I,170). **Euskararen muina** bat baita alde eta aldi oro,... (II,40). hitzen burundari gehiago begiratzen diona **gauzen muin gordeari** baino (II,72). Etxeparez geroz, silaben kontua izan da **neurkeraren muina**, kontaktetan bereizkuntzak aurkitzen badira ere (IV,93). Nolanahi ere, hona nola adieraz dezakegun, gehiegizko zehaztasunik gabe, **gure esaera zaharraren muina**, (IV,102). Hizkuntzalariaren eremua, **gaiaren muina** hitzez-hitz hartzen budugu, hizkuntzak mugatzen du (IV,114). .....

Ikusi **MUIN; ERRO; FUNTS; BARREN 1.; IZANA ETA IZENA; SUSTRAI (ZERBAITEN SUSTRAIA IZAN); MUINA ETA MAMIA; MAMIA ETA MUINA; MAMIA ETA BARRENA; MUINEZ ETA MAMIZ; FUNTSEZ ETA MUINEZ; SUSTRAIZ ETA FUNTSEZ;**

✓ Oso erabiliak ez izan arren bereziki deigarriak edo adierazkorak diren hitzak:

**GORESMEN. Elogio(s), alabanza(s), enhorabuena. Ahoa betean eralgitzen baditugu goresmenak**, zer geldituko zaigu egiazki goragarri den idazlan batezko iritzia azaldu behar dugunerako? (I,83). Mitxelenak **esku zekenez eman omen zizkion goresmenak**, zenbaiten ustez, A, Olabideren itzulpenari (I,208). Domingo Agirreren Garaok **ez du goresmen beharrik** (II,79). ...**bere jaioterriari goresmen egokia kantatzea** (II,101). . .....

Ikusi **GORAMEN; GORAMENEZ BETE; LAUDORIOZ BETE**

**KATRAMILA.** *Complicación, embrollo, lio.* Hitzen eremuan, ...**aspaldidantikakoa dugu katramila eta saltsa** (VII,29). Ikusi **NAHAS-MAHAS; NAHASPILA; NAHASTE; NAHASTE-BORRASTE; NAHASTEKA; SALTSA; LARDASKA**

✓ Oso erabiliak diren arren, ohi ez bezalako adiera interesgarriren bat duten hitzak:

**BERRITU.** *Repetir, decir, contar, hacer de nuevo.* Heriotzaren itxura larriak **berritzen dizkio betiko galderak:** (I,197). Eta goazen lehenbailehen Lizardik bere mai-tearekin amets-bideetan barrena egin zuen **bidaldi luzea berritzera** (IV,26) Europako haizeak onak ala kaltegarriak ditugun: hona orain biztu eta **berritu zaigun auzia** (IV,44). Lelo hori atertu gabe entzun daiteke geroztik, eta **ipuin zaharrak berritzen** dituzte 1808 eta ondoko urteetako ezbehar odolgiroek (VI,68). Besterik mintzatu da hemen Gramáticaz eta **ez nuke zaharrak berritzen abiatu nahi** (VI,79). .....}. Ikusi **BERRESAN**

**GORRI.** *Extremo, tremendo, duro, riguroso, cruento, terrible, crudo, intenso, descarnado, atroz, encarnizado, penetrante.* Ez ote dago biderik, **behar gorriaren ihesi**, nagi goxoari amore emateko? (I,81). ...**etsibehar gorrian**, poz eta harrotasun-bide zituen lau gauzatxoez erantzia (I,183). **Txorakeria gorria litzateke**...filosofiaz mintzatzen hastea, baina **are gorriagoa**... mintzatzeko eskubidea kentzea (III,76). (III,92). Behar beltzak eta **kale gorriak** eman dioten hazibide latza galduak izango ditu... (III,92). **Gerra badakar, gerra gorria izango du** berak ere (III,117). ...**zoramen gorrian** geure buruari begira luzaroan biziak baldin bagara (IV,33). Gainerakoak...**ezerez gorrian utzi ditu** (VI,101). Eta hor geldituko naiz are **istilu gorriagoetan** ez murgiltzearren (VI,143). Maiz ibili ohi naiz duda-mudaka eta **zalantza gorrian** (VII,173). ..... }.

**BELTZ.** *Oscuro, sombrio, negro, triste, desgraciado.* Ibar baten ondoan bestea, **gau beltzak** bezala, erdarak estali ditu (I,63). Oteizaren antze lana halako **aztikeri beltz** baten lainoaz inguraturik agertzen baitzaigu ezjakinei (I,107). Eta, hau da beltzena eta gogorrena,... (I,130) Eta handizki arteko **ixtilu beltzen** baten aztarrenik atera ahal balezate, are gehiago (I,150). **Behar beltzak eta kale gorriak** eman dioten hazibide latza (III,92). ...deitoratu zituen **jaioterriaren ordu beltzak** (III,131). ...**irainik beltzena arrazoirik gabe bota** ote nion beldurrez (IV,71). **Ordurik beltzengan** ere, ... (V,44). haizeka eta haizeka ari diren **ipar beltzak** eta mendebal gorriak gure arteko euskalariak uxatuxe dituztenen, euskalari bezala agertzea (VI,98). Goazen, bada, Zaloñaren gogara, **misterio beltz hori** biluztera edo, nahiago badu, larru gorritan ipintzera (VIII,138). .....}. Ikusi **ILUNBERIK BELTZENEAN EGON; BELEA BAINO BELTZAGOAK ZURITU.**

✓ Hitz bikote adierazkorrak:

**ALDE ETA ALDI ORO.** *En todo tiempo y lugar, en cualquier época y lugar.*

Euskararen muina bat baita **alde eta aldi oro** (II,40). Poesia soila, poesia hutsa, berez ez baldin bada ere, bertsogintza hau da, **alde eta aldi oro**, poesiaren izenpean onartzen den poesi antzeko edo poesi ordeko hura (V,41) Multzo-teoria, batez ere, **zelatan dago**

**beti, alde eta aldi oro**, linguistika osoaren oinarri bihurtzeko asmotan edo,...(VI,94). Ikusi **ALDI ETA ALDE; NON ETA NOIZNAHI; NOIZ ETA NONAHI; ALDEKO ETA ALDIKO**

**ZENTZUZ ETA NEURRIZ. *Con sensatez y comedimiento***. Behar duen aurkezpena, gainera, **zentzuz eta neurritz egina** (III,113). Asko eta ederki dakite bihur-lanean aritu direnek, baita dakitenaz **zentzuz eta neurritz baliatzen** ere (III,127).

**GOGOZ ETA EGITEZ. *De pensamiento y obra***. Caracasen, **gogoz eta egitez hain maite izan zuen lurretik urruti**, hil zaigu Elantxobeko seme jator, euskaltzale sutsu eta euskal idazle trebeen eredu hau (VIII,82).

✓ Elkarturik edo elkarren ingurutsuan ageri ohi diren hitzak:

**IZENA ETA IZANA. *Nombre y esencia, nombre y ser, nombre y sustancia, lo dicho y la realidad, el título y el contenido***. Eta **izenari baino izanari lotuago** ageri den mintzabehar horrek, barren-irakite horrek, uzta joria sor dezake,... (I,86). **Izenak eta izanak bateratsu dabilta** oraingoan, Jainkoari eskerrak (I,159). **Izenak** ez dira gehiegi aldatu, baina **izanak**... (I,176) ...**izenak utzi** eta **barrengo izanari** begira dagoen egiazko jakitea,... (II,72). Itxurak eta izen ederrek gu baino gutxiago lotsatzen dituzte: **izanari lotuagoak ageri dira izenari baino** (V,143). ...**izenak eta izanak** aldatzen hasiak baikenituen (VI,69). ..... }. Ikusi **IZENEZ ETA IZANEZ; IZANEZ ETA IZENEZ;**

**AZALA ETA MAMIA. *(axala). Forma y fondo, aspecto externo y contenido***. ...nahiz **azala** era askotakoa izan, **mami** bat du beti: zalantza (I,144). **Azala beti da mamiaren ide jatorra** (I,198). **Axularren azalaz**, hizkeraz, nahikoa eta gehiago esan da. **Gatozen mamira** (II,41). Orain **esanen mamia ez ezik, azala ere gorde** nahi izaten dugu (III,56). Hitz horrek, izan ere, **azalari**, mintzabideari, **begiratzen dio gehiago mamiari baino** (IV,42). Azala itxurazkoa da eta, **azalaren azpian, bada mamia** (I,159). **Esanak axalari dagozkio. Mamiari begira** diezaiozun (VIII,126). ..... }. Ikusi **MAMIA;**

## Aukeraturiko lokuzio eta esapideak

✓ Izen-esapideak:

**AITZIN-GIBEL. *Pormenores, detalles, circunstancias. Atze-aurre edo aitzin-gibelak*** nahasixe dabilta gure artean, denbora-neurrian: non daude aldi igaroan ala etorkizunean?(VII, 103). Darabilen auziaren muina ez da, azken buruan, Espainiako gerratea besterik: gerratea eta **gerratearen aitzin-gibelekoak** (VIII,34). Ikusi **ATZE-AURRE; INGURUMARI 2; ZER ETA NOLA 1.; ZER-NOLAKO 2; NONDIK NORAKO; ZERTZELADA; GAIN-BARREN; GOIBEHE ETA GAINBARREN; GOI-BEHEAK ETA LUZE-LABURRAK HARTU; BARREN ETA KANPO;**

**LUZE-LABUR. *Medida, dimensión, extensión, longitud***. Ez dugu lan handirik **luze-labur hitzaz edo esaeraz dakiguna** zure eskabidearen arabera adierazteko (I,222)....

Aita Villasantek **hartu dizkio goi-beheak** eta **luze-laburrak** Gandiagari...(III,79). Ez naiz hemen abiatuko **baratze horren luze-laburra neurtzen** (IV,29). ...**hizkera berezi honen luze-laburra** aztertu nahi izatea (IV,88). Belarrira edo begira eder bazitzaion ongi zegoen neurtitza, **latin silaben luze-laburra gora-behera**...(IV,118). ...gure lanaren zer-nolakoa, **luze-laburra** eta zertarakoa hitz bitan azaltzea (VIII,94). Ikusi **LUZE-LABUR; LUZE-LABURREAN; LUZE-ZABAL; LUZE-ZABALEAN**

**SATOR-LAN. Trabajo/labor de zapa, conspiración, trama.** Azpijanak eta **satorlanak** hain sarritan aipatzen direnez gero,... (VIII,24). Besteen azpijanaz eta **satorlanaz**, geureez ahazturik, sumindurik ibili beharrean,... (IX,59). **Sator lanean** dabiltza (II,141).

**AMETS XURI-GORRI. (txuri-gorri). Ensoñación, sueño de color rosa.** ...hor ditugu Detxepare eta Oihenart aseak...eta gugandik hurbilago Bilintx gosea, bizi zeino ondorerik gabeko **amets xuri-gorriak iruten ihardun zuena** (V,139). "1982" deritzan liburuan egin zuen etorkizunarekiko amesgaitz ikaragarria ez da agian goibelagoa **oraingo amets txuri-gorri hau** baino (I,175). **Amets zuri-gorri horrek baditu, haatik, zenbait alde txar** (II,81). Egin dezagun kontu begien aurrean daukagula **ametsik xuri-gorriena egia bihurturik** (IV,42). Ikusi **ETORKIZUNA XURI-GORRI IKUSI; XURI-GORRI/TXURI-GORRI.**

✓ Adjektibo-esapideak:

**GALTZA-JARIO. Calzonazos, baldagras. Cantinflas galtza-jarioak** trebe baino trebeago dihardu morrontzan, toreatzean nahiz dantzan, ... (I,181).

**NEURRIZ GAINEKO 1. Extraordinario, sobresaliente.** Frantzian ez dago inor **neurritz gainekorik** (Pio Barojak esan digu) (I,54). **Neurritz gaineko gizona**, jenioa, (I,136). Ikusi **BEREALDIKO; BEREBIZIKO; GOI-GORENGO; GAILEN; GARAI 1.; AUKERAKO; GAIN-GAINEKO 1.; BERDINGABE; PAREGABE**

**NEURRIZ GAINEKO 2. Excesivo, desmedido.** Purrustada latzak ere ez dira falta. **Neurritz gainekoak** ote? Ez dut uste... (VIII,157).

**GUPIDARIK GABEKO LAN. Trabajo infatigable, sin descanso. A** Etxeberria eta beste zenbaiten **kupidarik gabeko lanari eskerrak**,... (II,109). Ikusi **GAITZ 2 (GUZTIZ HANDIA).**

**BERE GISAKO (17). Propio, característico, singular.** Zortzikoa berria da, bada-kigu, **baina 5/8'ari halako bere gisako nortasuna eman diogu** (Escudero maisuak esan digu)(I,48). Ederra da benetan: **badu halako bere gisako bihotz-isuri xamurra** (Migel Castells'ek esan digu) (I,71). **Hizkuntza ere bere gisakoa dute euskaldun hauek** (I,133). **Lanbide honek bere gisako hizkera ere eskatzen du:** arina, lasterra, txairoa, arrunta, egunorokoa (II,50). ..... }

**HEZUR ETA MAMIZKO. De carne y hueso.** ...gizaki biziak sortzen ditu, eta itzal horien biziak ez dio batere zorrik **hezur eta mamizkoen** biziari (VIII,76). Ikusi **HEZUR-HARAGIZKO**



**OSO ETA BETE(A). Pleno, completo, integro.** Liburutxo hau, irudiz ongi jantzia, **monografia oso eta betea** da (III,145). Lehenbiziko ahapaldiak **oso eta bete** dirudi zentzuaren aldetik (V,73). ...badira **hizkuntza oso eta beteak**, baita ere, horien aldakan, erdi hizkuntza diren hizkuntzaxkoak (VI,113). Euskaldun izatea ez da gizon izateko era bat besterik, **gizon oso eta betea** (VIII,59). Ikusi **BETE 4; OSO-BETE; BETEGIN; GIZON OSO; GIZON HAZI BIZARTSU;**

✓ Aditzarekin batera doazenak:

**ISILPEAN, ISILEAN GORDE. Mantener oculto, en silencio, en el anonimato, silenciar.** ...argitaratze-lana bere gain hartu duen Aita Prantziskotarrak– **ixilpean gorde du damurik bere burua...** (II,78). ...ez dakit, ordea, badudan eskubiderik bere izena agertzeko, **ixilpean gorde** nahi izan duenez gero egileak (II,125). ...norbaitek **egia hori ixilpean gorde** nahi izan badu ere, haren alde jokatu zuten ahaleginean, Madrilen eta (IX,25). ... nik agerian diodana **ixilpean gorde nahi luke** berak, soil-soilik, ikusten baitu adin-auzia dugula oinarriz gurea (VIII,150). ..... }. Ikusi **ISILPEAN GELDITU; ISILPEAN UTZI; ESTALI;**

**HITZAK HIZPIDEA EKARRI. Venir, traer a cuento la conversación, venir al caso, venir a colación, venir al hilo. A propósito.** Hasten dira azkenik hizketan eta, **hitzak hizpidea dakarrela**, horra non lehenbizikoak jakiten duen poliki-poliki bigarrenaren iritzien berri (I,261). Eta, **hitzak hizpidea ekarririk**, aipa dezadan bidena-bar... (IV,130). Esan dezagun, **hitzak hizpidea ekarrita**, Axular luzaro baztertua behar ez bezala goratu nahi duela orain zenbaitek, ... (V,55) Eta, **hitzak hizpide ekarri** duenez, ohartxo bat egin gogo nieke neure herritar bihotzekoei,...(VII,40). ..... }. Ikusi **HARIRA ETORRI**

**ERABAT HARTU. En conjunto, en su totalidad, en general. Erabat harturik, –kor aditz-erroei loturik joan ohi da** (VI,157). ...baita berriro ere esango, Itunbe”ek lan ederra eta onuragarria egin duela, **erabat hartuz gero** (II,85). Bertso batzuek bete-agoak irudituko zaizkigu, eskasagoak beste zenbait, **baina, erabat hartuz gero**, erdal olerkien errainu bete eta ozen ageri zaizkigu (III,106). Baita hizkuntza bera ere, **erabat harturik**, hiztegi eta joskera (IV,79). Hori, gehiegizko baldin bada ere **erabat harturik**, egia da bai Ziburuko Etxeberri teologo jakintsuari dagokionez...(IV,93). **Ezin hobeki deritzat asmoari, erabat harturik** (IV,107). ..... }. . Ikusi **GUZTIRA;**

**BERTAN GOXO IRAUN, GELDITU, EGON. Acomodarse, conformarse con lo hecho, permanecer dormido en los laureles, apoltronarse.** ...eta ezin iraun **dezake euskarak bere hartan bertan goxo** gizarte horren mintzabide aurrera ere izan nahi badu (VII,166). Ez dut, ordea, horrenbestez esan nahi **bertan goxo geldi** litekeenik (II,61). ...**ez hango eta bestetango erabakietan gelditu bertan goxo** (VIII,162). Urte gehiegi iragan zaizkigu **bertan goxo geundelarik** (IX,59). Ikusi **BERTAN GOXO PLANTO EGIN; EGONEAN EGON; BESOAK GURUTZATURIK EGON; BESOAK TOLESTURIK; EGON 2.**

**ETSIA EGON 1. Estar resignado, desesperado. Etsi-etsia nago** gure jendearekin (MEG,126).

**ETSIA EGON 2. (ETSI-ETSIA, ETSIRIK EGON).** *Estar convencido.* Duela 70 urte, **etsia nago**, gehiago egiten zen euskaraz Donostiako kalean...(I,56). **Etsi-etsia dago euskal filologia**, beste edozein bezala, testuen gainean bakarrik landatu eta **eraiki daitekeela** (V,101). Behar ez den bidetik, bide ez denetik, beraz, abiatu naiz atariko, hitzaurre, sarrera edo dena delako zirriborro-pilo hau egiten, **etsi-etsirik alfer-lanean ari naizela** (V,109). **etsi-etsia zegoen** berari egin zioten bidegabekeriak mundu osoaren izaera eta egoera nolerebait **bere onetarik atera zuela**... (IX,97). Ongiegi ohituak gauzka: **etsirik gaude** zernahi gauza **eman dezakeela** euskara garbian (II,75). ..... }. Ikusi **SINETSIK EGON**.

**INGURUZ INGURU IBILI.** *Vagar, deambular, sin rumbo fijo.* Hemingwayren **kontatzeko modu soila**,... **inguruz inguru nora gabe dabilena**, ez da bihurtzen erraza, ezta alderatzeko ere, (III,113). **EGUN HONA BIHAR HARA IBILI; BATERA ETA (EDO) BESTERA IBILI; NORA GABE IBILI; BAZTERRIK BAZTER IBILI; ALDERIK ALDE IBILI**

**ZOR (ZORRIK EZ IZAN INORI EDO EZERI).** *No desmerecer de, no ser en nada inferior a, no ir, andar o quedar a la zaga.* **Ez dio inori zorrik** (I,144). ...gizona den aldetik, **ez dio batere zorrik** zaldunari (I,198). ...lehen egin izan ditueni **batere zorrik ez dietenak** (II,43). Ez diote, ordea, tiki eta labur izanagatik, **inori ederrean zorrik** (II,63). Alde honetatik, ene ustez, **ez dio batere zorrik Domingo Agirreri**, ezina badirudi ere, ez jatortasunean ez aberastasunean (II,100). **Ez dio** bigarren honek **batere zorrik** lehenbizikoari, (II,146). Ez dut esaten **horiei zorrik dienik** (V,59); **euskarak ez ziola hitz-kontuan inolazko zorrik inongo erdarari**, latin eta gaztelaniari lehen-lehenik (V,104). ...badirudi **ez diola Mendiburu berriak batere zorrik Kardaberazi** (V,103). ...eta itzal horien biziak **ez dio batere zorrik** hezur eta mamizkoen biziari (VIII,76)..... }.

✓ Aditzlagun-eginkizuna dutenak:

**AMORRU BIZIAN.** *Hecho una fiera.* ...amorr**u** bizian elkarrekin sesioan ari garen bitartean,... (VIII,146). Ikusi **AMORRU BIZIAN; BORROKA BIZIAN; BURRUNDARA BIZIAN; EZTABAIDA BIZIAN; GATAZKA BIZIAN; GERRA BIZIAN; JOLAS ARIN BIZIAN; LASTERKA BIZIAN; OLDAR BIZIAN; PREMIA BIZIAN; PREMIA BIZIAN; SEKULA BIZIAN ZALAPARTA BIZIAN;**

**APURKA ETA PITINKA.** (*apurka eta pitinga*). *Con cuentagotas, muy poco a poco.* Hizkuntz berreraiketak muga zorrotzeiak ditu, **apurka eta pitinga ari da beti lanean** eta eskemen eskemak ditu azken irabaziak, onenean ere (VI,112).

**BURUZUT.** *Con la cabeza bien alta, con la cabeza erguida.* Ba omen dugu euskaldunok lurberan **harro eta buruzut ibiltzeko** nahikoa arrazoi, ...(IV,125). Ikusi **BURUA HARRO JASO, ERAMAN.**

**ZURRUSTAKA.** *A borbotones.* Azkenaldi honetan gure euskara gaixoari **bizia zurrustaka dihoakio**, nork uka hori? (Aita Plazido Mujikak esan digu) (I,91).

**ERRUZ.** *En gran cantidad, en abundancia, copiosamente, a mansalva, a manta.* Negar-usainera **jendea erruz dator**, eulia goxora bezala (I,131). **Jendea**

**erruz, xinurria bezala, dabil bere nobeletan**, baina jende hori ez da gehienetan itzal-pila besterik (VIII,76). **Dirua erruz omen dabil**, eta diruak eragin ditu lehenago ere hori baino okerragoak (I,167). **Erruz saldu da Bizkaian**, dakidanez, eta handik kanpora ere zabaltzea merezi luke (III,48). ..... } Ikusi **ABONDO; BARRA-BARRA; GAINEZKA; GALANKI; OPARO 2. PARRASTAKA; UGARI 3: ESKUAK BETEAN; BIHOTZA BETEAN.**

✓ Denbora-esapideak:

**ASPALDI EZ DUELA (19). *No hace mucho. Aspaldi ez duela*** agertua da Txillardegiren Euskal kulturaren zapalketa: (I,255). **Aspaldi ez duela**, Príncipe de Viana'k argitara atera du, (III,155). . Idazle eta euskaltzain ezagun batek **aspaldi ez duela** esan digu,... (IV,121). ...**aspaldi ez duela** galdu genuen René Lafon irakaslea (V,32). Behin batean, **aspaldi ez duela**, honako galdera hau egin zidaten: (VIII,106). ..... } Ikusi **ARESTIAN; ORAIN BERRIRO; ORAINDIK ORAIN; ORAINTSU; ORAINAGO; LEHENGO BATEAN;**

**LUZARO GABE (26). *En breve, sin tardanza, pronto.*** Uzta ederra bil genezake **luzaro gabe** (I,81). Egingo nuke gainera lortuko duela **luzaro gabe** ahaleginetan lortu nahi duena (I,260). Hutsaren inguruko azal atseginak, musika itsaskorrek bezala, gogait eragiten digu **luzaro gabe** (II,65). ...ezerezak luzaro gabe deuseztatu eta irentsi beharrekoa (IV,22). Kalean da beraz **luzaro gabe** (MEG,143). Uste nuen nik bazenekiela **luzaro gabe** argitaratuko duela Peru Abarka (MEG,79). ..... } Ikusi **LUZATU GABE; LUZARORA GABE; AURKI; LASTER; BEREHALA; AGUDO 1; AGUDO 2; BEREHALAKO BATEAN; BEREHALAKOAN; BERTATIK (BER-BERTATIK).**

**BERRIAN (ADITZA+BERRIAN). *Recién..., nada más..., al poco tiempo de...*** (Migel Anjel Alvarezek esan digu) (Paris) **Joan berrian**, harrituta nengoen ikusten nuenarekin (I,66). Iritziak iritzi, noan orain gure artean, **agertu berrian bertan**, izan zuen harreraz mintzatzera (V,134). **Hasi berrian** nolana hiko politika paperak sorrerazi zituen Iraultzak (VI,53). Batasunak, edozein batasunek gero, galera berekin dakar: **ez da, hasi berrian** behintzat, inoren amaren hizkuntza izango,...(VIII,143) (Migel Castellsek esan digu) Neke izan ahal duzu euskaraz ikastea? **Esan zidan hasiberrian adiskide batek**: Alferrik habil: ez duk ezer aurreratuko (I,70). Adiskide ustekoak **murgildu zuen putzutik ateratzen badu hasiberrian Cabiria gaizoa**, ... berriro ere osin ertzean uzteko izango da bakarrik, etsibehar gorrian, poz eta harrotasun-bide zituen lau gauzatxoez erantzia (I,183). Ikusi **BERRI HARTAN.**

**DENBORAREN JOANEAN. *Con el paso del tiempo.*** Denboraren joanean matematikazko teoria batzu sortu dira (X,24). Ikusi **URTEEN JOANA; MENDEEN JOANA; JOAN 3**

**BAKAN 2. *Raramente, en contadas ocasiones.*** Bakan ikusten dugu horrelakorik Ipar-Ameriketarik datozkigun gauzetan (I,142). Honen liburua **bakan aurkitzen da** (V,60). ...nahiz gure egunotan **bakan erabiltzen** den (VII,104). Maiz entzuna bezain **bakan ikusia** den *ardit* hori, (III,96). Dena den, **gero eta bakanago agertzen ziren eskutitzak**; azkenik, mututu ziren (IX,95). ...beti izan dira gure artean, **beti izan bai-**

**tira, ugari edo bakan, eskualde bateko eta bestekoen artean har-emanak** (VIII,103). Ikusi **BAKANKA; TARTEKA ETA BAKANKA; NOIZEAN BEHINKA; ALDIZ-ALDIZ; ALDIZKA; TARTEKA;**

✓ Zenbatekotasuna adierazten duten esapideak:

**APUR. Pocos, contados, lo poco que, los pocos que.** Egunoroko doinua zahar-berritzeko erantsi ohi diren **aldakuntza apurrak** sartzeari ere ahaztu egin zaie (I,150). Horrexegatik beragatik, ezagutzea merezi lukete, ... ditugun agiriko **dokumentu pixar-rrak eta apurrak** (I,251). ...ibilaldi bakoitzean **bildu dituen ondasun apurrak** sakabanatu beharrean maitekiro gorde izan bagenitu, garen baino aberatsago ginateteke (V,57). euskarak ere, ...neurri, lege eta erregelak jakinak behar zituela, idazle eta hizlari-rien artean... **Aurkeztu zituen apurrak** berak ez ziren beti ontzat emanak izan... (V,98)..... }. Ikusi **PIXAR (PIZAR); TXIRBIL; BAKAN 1; URRI 1. BANAKA 2.; BANAKA BATZUK**

**HALAKO (HAMAR, BI, EHUN...HALAKO). Multiplicar(se) por.** Diren baino **hamar halako ardanegi gehiago** irekiko balira, ez da hau nik asmatua, ez lirateke hordiak hamar aldiz gehituko (I,152). ...**etxean ditudan halako bi ohe baneuzka**, ez nuke horregatik lo gehiago egingo (I,152). ...maiz hartzen ditugu ahotan aipamen ilunak... zehar-esan orapilatuak, hizkuntzaren aldetikako **eragozpenak ehun halako gehitzen dituztenak** (V,72). Mendibururen **euskal idazlanak bi halako gehitu zai-zkigu orain**, lehen ezagutzen genituenen aldean,...(V,101). Belarraren berdea berdeago zuen, eta txiribita zuriak banan banan galdu ahala, **hamar halako rubi-kolorezko unanu-lore jaiotzen ziren** (V,138)

✓ Gutxi gorabeherakotasuna adierazteko hitz, esapide eta baliabideak:

**INGURUTSU. Más o menos.** Musikan **Beethovenen ingurutsuan** egin nuen planto (I,107). Manoleteren toreo-gisa urri eta labur adina da aberats eta **ingurutsu** Altube jaun-naren mintzaera (II,93) ...bertsoak ez dira berdinak luze-laburrean, **neurri jakin baten ingurutsuko badira ere** (IV,93). Goazen **ingurutsu horretan hasi zen** Donosti-inguruko teatroarekin (VII,34). Ikusi **HOR NONBAIT; ALDERA; GUTXI EDO GEHIAGO;** Ikusi **BATERATSU; BATETSUKO; BERDINTSU; BESTELATSUKO; BEZALATSU; GARAITSU; GEHIENTSU; GEROTSUKO; GISATSU; HALATSU; INGURUTSU; KIDETSU; MODUTSUAN; ORAINTSU; ORDUTSU; ORDUTSUAN; OROBATSU; PARETSU; URTETSU;**

**ANTX (ANTZ). Tener cierto aire, deje, ser un un poco, hasta cierto punto, algo.** **Halako triste-antxa** nabaitzen du bazterretan (I,53). Carmen Laforetan lanek **umekeri-antxa** badute (I,54). Honako film hau ez duzue inondik beste munduko gauza. **Badu haatik halako bizitz-itxura edo egi-antxa** (I,149). Ederki adierazten du egi-leak, **ez halako bildur antx bat agertu gabe**, zergatik ez ditugun ontzat hartu behar bertso berrien etsaien esanak, 134 eta hurrengo orrialdeetan (II,106). ...alegia, bizidun-nen bizia baino biziagoa gertatu ohi den **egi-antzik baduten** (II,138)... haurrek badute **halako lehor-antxa**...(I,191). .....

**TXO (ADITZ LAGUNTZAILEA+N+TXO).** *Lo poquito que.* Berandu hobe denez gero, ordea, inoiz ez baino, hemen dihoakizu **dakiguntxo** (I,219). Bestela esan, zordun gara zerbait kultura sailetan, **duguntxo** pixkaren zordun, nahiz euskaraz nahiz erdaraz mintza,... (IV,43). Zerbait ikasi egin dugu, onenean ere, alor horietan, **baina ikasi duguntxo**, besterengandik ikasi dugunez...(VII,188). ...bestek urteen buruan aalegiñez **egin dutentxo** instant batean deusezta dezake (MEG,95).

**BAZTERTUXE.** *Algo, en cierta medida relegado, apartado.* Segura, Goierriko herri ederra, **baztertuxe gelditua genuen** aspalditxoan, (I,99). ...baina geroztik hona jakintza hau **baztertuxe edukia dut** (II,96). **Baztertuxe dauzkagu** literaturaren kon-dairak berezko dituen eskariak eta galderak (IV,92). Sortu eta hartu, egungo egunean egin ohi den bezala, atzoko alderdikeriak **baztertuxe daudelarik** (VII,184). .....  
Ikusi **IV. ERANSKINA**

✓ Usadiozko bestelako esapide bereziak

**ESANAREN ESANAZ.** *A fuerza de repetirse, de tanto repetirse.* Maiz gertatu ohi da, izan ere, honelako liburuetan, ...idazlea **esanaren esanaz** asperturik bezala mintzatzen zaigula, (III,88). Ikusi **III. ERANSKINA.**

**ARGI BAINO ARGIAGO.** *Meridianamente claro, más claro que el agua.* ... baita lehenagoxekoek **argi baino argiago** ikusi zituzten auzietan ere (IV,51). ...parean datorren perpausak **argi baino argiago** adierazten duenez: ... (VI,117). Arian-arian ulertu nuen, **argi baino argiago**, ez nuela nik nengoen egoeraren kulparik (IX,93). ... esaera honen testua **argi baino argiago baitatza** 30 eta hurrengo lerroetan (VI,193).  
Ikusi **I. ERANSKINA**

**OIHUAK OIHU.** *A pesar de gritos y disputas.* ...oihuak oihu eta sesioak sesio, utzi eta baztertu egiten dira, azken finean bederen, norberekoikeriak eta eskualdekeriak (IV,112). Ikusi **V. ERANSKINA**

✓ Testua antolatzekeo interesgarriak izan daitezkeenak

**HARAKO... Aquel...** ...beharrezkoa da kritika edozein herri ongi gobernatutan, **harako Cervantesek aipatzen zuen lanbide hura** bezala (I,82). Pernando hau, Etxaidek hitzaurrean dioenez, **harako Pernando Amezketar sonatu haren anaia**, senide, gogaidea da (II,91), erakutsi du badakiela lanbide hori **harako Cantervilleko etxajaun gizarajo hark** baino hobeto (I,174). Pertsona nagusia Esquilache siziliarra da, **harako Madrilgo kale-argitzaile eta garbitzaile**, baita kapa eta kapelu zaharren **etsai hura** (I,192). Ibilian, jakina, galdu beharko du **harako lehengo garbitasun eta distira hura...** (II,40)... **harako** leihoak itxitako jauregia dirudien **hura...** (II,64) Honek ere esan dezake, **harako** Detxeparek azken buruan esan zuen **hura** bera: (III,106). ..... }

**KANPORA (-Z KANPORA).** *Además de, al margen de, fuera de, exceptuando, excepto.* Musikak, gogoaren **gorabeheraz kanpora**, gertakari bat adieraz ahal dezake? (I,50). Sail jakin **horietatik kanpora**, zenbait gai ezin uki ditzake EGAN'ek, dena delako (I,83). ...**euskal gaiez kanpora**, pintura, zezenak edo zinema erabiltzea alegia (I,120).

Han ere, hemen bezalaxe, **beste grinez kanpora**, norik bere burua goraino jaso eta besterena lurreraino jatxi? (I,130). Badu, agidanean, Brasilek munduari zer erakutsi bere lurreko **aberastasun ugarietz kanpora** ere (I,134). Zenbait **irudi atseginez kanpora**, bi ixtorio gelditu zaizkigu gogoan (I,158). **Etxaidez kanpora** ere izan ditugu lan asmatuak:(II,50). (II,96). ..... }. Ikus **LANDA (-Z LANDA, LANDARA)**.

✓ Esaera zaharrak, zahar kutsukoak edo Mitxelenaren lumaz zaharberrituak:

ADITZAILE ON. Erabateko iritzia emana dago: **aditzaile onak ez du besteren beharrik** (II,76).

ALDI JOANAREN ERROTARRIAK EHO. **Ez zuen aldi joanen errotarriak eho haren oroitzapena**, bestela bezala: jende azkarra eta langilea behar izan zen horrenbestera (VII,34).

ALDIAK NOLAKO, GIZAKIAK HALAKO. Gizona beti gizon delarik, **aldiak nolako, gizakiak halako** ageri baitira (V,37)

ALEGI ALDETIK SORTU Zenbait kritiko baldanek esan izan dugu, **Alegi aldetik sortu zaigun Argia ikusi baino lehenago, jakina**, Peru Abarka, tira, ez dela bere aldiko liburua (VIII,27). ???

ALFERRA BETI LANTSU, esan ohi da, eta lantsu bezain burutsu erantsi behar (I,81).

ALFERRAK BI LAN. **Bi lan egin beharra izango du, alferraren gisa** (II,104).

ALTZAIRU ONAREKIN...**altzairu onarekin nornahi da errementari** (I,186).

AMAREN SABELTIK ONDO IKASIAK ETORRI. Euskaldunak ere **ez datoz beti orain, lehen bezala, amaren sabeletik ondo ikasiak**: (VIII,45).

ASTO BATEN GAINEAN, BESTEA ALAJAINA! (VIII,28).

AUKERAREN MAUKERA “**Aukeraren maukera, atzanean okerra**” (III,73). **Aukeraren maukera**, -Isastik jaso zuenez- **kenean okerra**, eta horrix da horrelakoetan gertatu zaidana (IV,130). ...hitz ugariegi izango ditut irispidean, **aukeraren maukera, azkenean okerra**, esaera zaharrak zion bezala (VI,90). Ez dago hor buru-haste ez kezkabiderik, **aukeraren maukera ez baldin bada** (VI,129). ..... }.

## Bildumaren itxura

Lehenago adierazi dugunez, jasotako sarrera guztiak ordena alfabetikoan ezarri dira eta beraz bildumak hiztegi-tankera hartu du.

## Sarreren egitura

Lehendabizi sarrera-burua ageri da letra larri lodiz idatzita eta horren ondoren, parentesi artean, komenigarri iruditu zaizkidan argitasunak **–KANPORA (-Z KANPORA)–**. Zenbaitetan hitz edo esapidea obra osoan zenbat aldiz agertzen den ere adierazi dut, dagokion kopurua parentesi artean ezarriz **–LUZARO GABE (26)–**.

Segidan, premiazkoa iruditu zaidanean, kategoria gramatikalak eta aditz erregimenak jarri ditut letra xehez –izond. iz. adlag./da. zaio.–.

Horren ondotik, zenbait kasutan bederen, hitz edo esapideak obran dituen aldaera ortografikoak datoz parentesi artean eta letra xehe etzanez idatzita **–BEHINIK BEHIN.** (*beñikbein, beñipeñ*)–.

Hitzak edo esapideak izan ditzakeen adierak edo ñabardurak hurrenez hurreneko zenbakien bidez sailkatu ditut **–HALABEHARREZ 1. Inevitablemente, forzosamente... HALABEHARREZ 2. Casualmente, por casualidad... HALABEHARREZ 3. Por desgracia, fatalmente.–**

Jarraian, gaztelaniazko ordainak datoz. Ahalik eta ordain gehien ematen saiatu naiz. Bi arrazoiengatik. Batetik, adibide ugariet testuinguru bakoitzean har ditzaketen ñabardurak nolabait islatzearen, eta bestetik, berriz, bilduma honetan esapide baten bila gaztelaniatik abiatzen denari aukera gehiago eskaintzeko. Gaztelaniazko ordainak emateko oso baliagarri izan zaizkit, besteak beste, Orotariko Euskal Hiztegia, Elhuyar eta Zehazki hiztegiak; horiez gain, lehenago aipaturiko “*Mitxelena gure artean*” eta “*Mitxelena entre nosotros*” liburuak ere oso lagungarri izan ditut, horiei esker euskarazko testua eta gaztelaniazkoa elkarren parean jarri eta hitz eta esapide asko argiago ikusteko modua izan baitut. Batzuetan, liburu horretako gaztelaniazko bertsioko esaldiren bat dagoen-dagoenean aldatu dut bilduma honetara, betiere komatxoan artean jarrita, esaterako **SUSMO 2. Indicio.** “*El tibio viento parece anunciar una primavera temprana*”. Haize epelak **badu halako udaberri-susmo goztar bat.**

Euskarazko adibideei doakienez, berriz, hitz edo esamolde bakoitzetik (eta interes-mailaren arabera) kopuru aski adierazgarria hartu dut beti, lokuzioaren esanahiaz eta erabileraz ondo jabetzeko moduan. Sarrera batek adibide bakarra edo bakar batzuk baizik ez izateak esan nahi du testuan ez dudala besterik aurkitu. Adibide osoaren barruan bereziki kontuan hartu beharrekoak diren hitz edo pasarteak letra lodiz nabarmendu ditut. Adibide bakoitzaren ondoan argi ageri da parentesi artean zein liburutatik hartua den eta liburuko zein orrialdetan dagoen. Adibidez: *–Honako film hau ez duzue inondik beste munduko gauza. Badu haatik halako bizitz-itxura edo egi-antxa (I, 149)..*

Bestalde, adibide guztiak eman ondoren, beste atal bat ageri da, kasu guztietan “Ikusi” hitzarekin hasten dena. Atal horretan honakoak jaso ditut:

*Sinonimoak eta esanahi bertsuko hitz eta esapideak.* -**GIZON OSO. Hombre integro, hombre a carta cabal, hecho y derecho.** Onenak behintzat, eta Eleizalde onenetakoa genuen noski, **gizon osoak zirelako**, ..... }. Ikusi **OSO ETA BETE; OSO-BETE; GIZON HAZI BIZARTSU; BURUTIK OIN-ZOLARAINOKO GIZON-**.

*Egitura bereko esapideak:* **URRUTIRA GABE. Sin ir más lejos.** Baina badut nahikoa adibide nire jaioterrian, **urrutira gabe** (VI,102). Ikusi **AURRERA GABE; LUZARORA GABE; GERORA GABE.**

*Eranskinetan bildutako testuetara joateko deia:* **XINPLE BAINO XINPLEAGO. Simple en extremo.** ...arako **ekuazio diferentzial ximple baino ximpleago hartan** baitatza: (VI,121). Ikusi **I. ERANSKINA**

## Eranskinak

Bilduma honen eranskinetan honakoak bildu ditut:

- Bilduman dagokien sarreran azaldu arren, beren interes edo berezi-tasunagatik batera agertzea komeni den esapide edo egiturak (“**aisa baino aisago**”, “**lanaren astuna**”, “**ariaren ariaz**”... erakoak).
- Gramatikaren aldetik interesgarriak iruditu zaizkidan hainbat eratako esapide eta egitura bereziak (“**Paris-aldetik etxera naizenean**”, “**badute nork aipa**”, “**isur baleza**”...erakoak).
- Esaera zaharrak eta zahar kutsukoak
- Gutunen hasierako eta bukaerako agurrak.

## Bi hitz bukatzeko

Ikerlanaren interesari dagokionez, lehenago adierazitako arrazoi guztiez gainera, esango nuke azterlan hau oso baliagarria izan daitekeela gure idazle klasiko handi baten hizkuntza-aberastasunaz hobeto jabetzeko eta lokuzio, esapide edo egitura jakin bat bere obran nola erabili duen argiago eta erosoago ikusteko, baita ahaz-tuxeak ditugun hitz eta esamolde batzuk gogora ekarri eta berrietarako zenbait sorbide ikasteko ere; hitz batean, Mitxelenak esku trebez landu eta zorrozturiko hizkuntza-tresnak hobeto ezagut eta erabil ditzagun.

## Azken oharra

Bilduma honetan hitz edo esapideren ez agertzeak ez du inolaz ere esan nahi Mitxelenak delako hori bere idazlanetan erabili ez zuenik. Azken batean, neronen



gogoko hitz eta esapideak bakarrik hautatu ditut; ez nik nahi hainbat ordea. Beste asko gelditu zaizkigu tintontzian zain, geroko ikerlanen esperoan.

Gogoan hartu ikerlan hau osatzen duten hiztegia eta hitz zerrendak BILDUMA 22 honen amaieran erantsitako CDan aurkituko dituzuela.

### Bilduman erabilitako ikurrak eta laburdurak

<....>	= esaldiaren testuingurua hobeto ulertzeko hitz-gakoak
...	= hasitako edo/eta bukatu gabeko esaldia.
izond.	= izenondoa (dagokion izenaren eskuinean doan adjektiboa)
izlag	= izenlaguna (-ko atzizkiaz osaturiko adjektiboa; orokorrean izenaren ezkerrean doa)
iz.	= izena.
adlag.	= aditzlaguna
du.	= <i>nor-nork</i> eta <i>nor-nori-nork</i> motatako laguntzaileak har ditzaketan aditzak
dio.	= <i>nor-nori-nork</i> motako laguntzaileak har ditzaketan aditzak
da.	= <i>nor</i> eta <i>nor-nori</i> motatako laguntzaileak hartzen dituzten aditzak
zaio.	= <i>nor-nori</i> motako laguntzailea hartzen dituzten aditzak.

Liburuetan ageri diren elkarrizketen aipamenak	
(Escud.)	= (Escudero maisuak esan digu)
(P. Baroja)	= (Pio Barojak esan digu)
(Aita Olazaran)	= (Aita H. Olazarenek esan digu)
(M. A. Alvarez)	= (Migel Anjel Alvarezek esan digu).
(M. Castells)	= (Migel Castells'ek esan digu)
(S. Carrero)	= (Santiago Carrerok esan digu)
(Aita Mujika)	= (Aita Plazido Mujikak esan digu)
(Elgarresta)	= (Elgarresta jaunak esan digu).
(Steiger jauna)	= (Arnald Steiger irakasleak esan digu)
(Oteiza)	= (Jurgi Oteizak esan digu)
(P. D. Ulzurrun)	= (Pedro Diez de Ulzurrun)
(N. Etxanizekin)	= Nemesio Etxanizekin batera egindako itzulpena.

### *Euskal idazlan guztiak bildumako liburukiei dagozkien laburdurak*

(I. ...)	= I. liburukia (Bertso berriak, berriketan, zinea eta adabakiak)
(II. ...)	= II. liburukia (Liburuak I)
(III. ...)	= III. liburukia (Liburuak II)
(IV. ...)	= IV. liburukia (Literaturaren inguruan I)
(V. ...)	= V. liburukia (Literaturaren inguruan II)

- (VI. ...) = VI. liburukia (Hizkuntzalaritzaz I)  
 (VII. ...) = VII. liburukia (Hizkuntzalaritzaz II)  
 (VIII. ...) = VIII. liburukia (Artikuluak eta beste I)  
 (IX. ...) = IX. liburukia (Artikuluak eta beste II)  
 (MEG,...) = *Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984)*  
 liburuari dagozkion laburdura

## Bibliografia

- ALTUNA P. *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak* (idazlanaren aukera, oharrak, iruzkinak, Patxi Altunak eginak) Bilbao: Mensajero, 1972.
- MITXELENA, K. *Euskal idazlan guztiak. I. Bertso berriak, berriketan, zinea eta adabakikiak*. Edizio-prestatzailea: Patxi Altuna. Erein. 1988.
- MITXELENA, K. *Euskal idazlan guztiak. II. Liburuak I*. Edizio-prestatzailea: Patxi Altuna. Ostoa/Etor 1988.
- MITXELENA, K. *Euskal idazlan guztiak. III. Liburuak II*. Edizio-prestatzailea: Patxi Altuna. Mensajero-Gero 1988.
- MITXELENA, K. *Euskal idazlan guztiak. IV. Literaturaren inguruan I*. Edizio-prestatzailea: Urgell, Blanca. Elkar. 1988.
- MITXELENA, K. *Euskal idazlan guztiak. V. Literaturaren inguruan II*. Edizio-prestatzailea: Urgell, Blanca. Kriseilu 1989.
- MITXELENA, K. *Euskal idazlan guztiak. VI. Hizkuntzalaritzaz I*. Edizio-prestatzailea: Lakarra, Joseba Andoni. Erein 1989.
- MITXELENA, K. *Euskal idazlan guztiak. VII. Hizkuntzalaritzaz II*. Edizio-prestatzailea: Lakarra, Joseba Andoni. Erein 1989.
- MITXELENA, K. *Euskal idazlan guztiak. VIII. Artikuluak eta beste I*. Edizio-prestatzailea: Sarasola, Ibon. Labayru Ikastegia 1989.
- MITXELENA, K. *Euskal idazlan guztiak. IX. Artikuluak eta beste II*. Edizio-prestatzailea: Sarasola, Ibon. Ostoa/Etor 1988.
- MITXELENA, K. *Zenbait Hitzaldi*. Edizio-prestatzailea. Juan Antonio Letamendia. Ed: Euskal Editoreen Elkarte, 1990.
- URKIZU. P. *Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984)*. Bilduma 18. Errenteriako udala, Errenteria, 13-223 or.
- LERTXUNDI A., JIMÉNEZ BECH J. *Koldo Mitxelena Gure artean. artikulua bilduma/ Entre nosotros. Artículos seleccionados*. Irun Alberdania, 2001.
- PEREZ GAZTELU, E., *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitatea*. Errenteriako Udala. 1995 (2 liburuki).

- SAN MARTIN, J. et al. (ed.), 1987, K. Mitxelena. *Gizona eta hizkuntza*. Egan, XL. Donostia, 1987.
- MITXELENA, K./SARASOLA I. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia. Diccionario General Vasco*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- SARASOLA, I., *Zehazki, gaztelania-euskara hiztegia*. Irun: Alberdania, 2005.
- SARASOLA, I., *Euskal Hiztegia*, Donostia: Kutxa Fundazioa, 2007.
- ELHUYAR, *Hiztegia*. Usurbil: Elhuyar, 2006.
- MOCOROA, J., 1998, *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca "Ortik eta Emendik"*, Bilbo: Labayru Ikastegia & IVAP-HAEE [CD-Rom-a].
- IZAGIRRE, K. *Euskal lokuzioak. Espainolezko eta frantsesezko gida-zerrendarekin*. Hordago, 1984.
- GARATE, G., 1988, *Erdarakadak*, Bilbao: Gero.
- GARATE, G., 1998, *27.173 Atsotitzak, Refranes, Proverbes, Proverbia*, Lasarte Oria: BBK Fundazioa. [Liburua + CD-Rom-a].
- EUSKALTZAINDIA, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak (I, II, III, IV, V, VI)*, Bilbo.
- BOSQUE, I. *Redes. Diccionario combinatorio del español contemporáneo*, Madrid, Ediciones SM, 2004.
- MARIA MOLINER, *Diccionario de uso del español*. Segunda edición. Madrid, Gredos, 1998.
- SECO, M.; OLIMPIA A., RAMOS G. *Diccionario fraseológico documentado del español actual*. Aguilar, 2004.
- CASARES, J. *Diccionario ideológico de la lengua española: desde la idea a la palabra, desde la palabra a la idea*. 2ª ed. corr. y aum., 20ª reimp. Barcelona: Gustavo Gili, 1997.

